

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

- 7351** *8/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 4koa, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharreko osasun, gizarte eta jurisdikzio mailako presako neurriak hartzen dituena (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko).*

I

Joan den 2020ko urriaren 25ean, 926/2020 Errege Dekretua jarri zen indarrean, urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Alarma-egoeraren indarraldia 2021eko maiatzaren 9ko 00:00etara arte luzatu zuen azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez luzatzen baita urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera.

Alarma-egoeraren indarraldia amaitzear dagoelarik, egiaztatu da egoera epidemiologikoa, nahiz eta oraindik ere kezkarria izan, kontrolatzen ari dela eta eusten ari zaiola, nagusiki txertaketa-prozesuaren bilakaera positiboaren ondorioz; izan ere, dosia jaso duten biztanleen ehunekoa handia da, eta gero eta dosi gehiago jartzen ari dira —batez ere, segmentu kalteberenetan edo esposizio handiena dutenetan—, eta eskuratutako txertoak emateko eta banatzeko prozesuak normalizatzen ari dira. Hala, arazoizkoa da iragartzea datozen hilabeteetan biztanleria pixkanaka immunizatuko dela. Herritar gehien-gehienak pixkanaka kontzientziatzeak eta erantzukizuna hartzeak horretan laguntzen du, baita Estatuko eta autonomia-erkidegoetako osasun-agintaritzek harturiko neurrien eraginkortasunak ere.

Horiek horrela, orain ez dago arrazoirik alarma-egoeraren salbuespenezko erregimenarekin segitzea justifikatzen duenik. Izan ere, Konstituzioaren arabera, aparteko egoeretan normaltasuna berrezartzen dela ziurtatzeko tresna bat da alarma-egoera, baina, den bezalakoa izanda, ezin da modu mugagabe edo iraunkorrean baliatu eta ez da hala egin behar; hain zuzen, nahasmendu larriak —hala nola SARS-CoV-2ak eragindako osasun-krisi akutuaren ondoriozkoak— saihesteko eta kontrolatzeko salbuespenezko neurriak hartzeko behar haren baitan dago haren indarraldia.

Horregatik, gure inguruko beste herrialde batzuetan haien salbuespenezko erregimen juridikoak iraunarazteari dagokionez jazo den bezala, Nazioko Gobernuak aztertu du alarma-egoera funtsezko eskubideak eta askatasunak mugatzen dituen erregimen bat izanda hari heltzea oraingo larritasunarekiko proportzionala den, eta erabaki du ez erabiltzea Diputatuen Kongresuari alarma-egoera luza dezala eskatzeko bere konstituzio-prerrogatiba.

Alarma-egoeraren indarraldian eta luzapenean zehar, eskuordetutako agintaritzak eskudunek neurri ugari hartu dituzte haren babesean, eta neurri indarraldia bukatu egingo da alarma-egoeraren luzapena iraungitzen den unean bertan. Hala ere, behar izanez gero, neurri gehienak Osasun Publikoaren Arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak zehaztutako esparruan har daitezke, eta, orduan, jurisdikzio-kontrol arruntaren menpe geratuko dira.

Horri dagokionez, errege lege-dekretu honek, osasun-egoerarekin lotuta, unean uneko arauketa batzuk jasotzen ditu hauek ukitzen dituztenak, neurrien eraginkortasuna eta koherentzia bermatze aldera: alde batetik, aipaturiko legedia aplikatuz hartu behar diren eta funtsezko eskubideak mugatzea edo murriztea dakarten edo hartzaileak banan-banan identifikatzen ez dituzten neurriak judizialki baimentzeko edo berresteko araubidea; eta,

bestetik, nazioarteko bidaiarien osasun-kontrolerako neurriak ezartzea SARS-CoV-2ak eta haren aldaerek eragindako infekzio-bektoreak sar ez daitezen.

Gainera, alarma-egoeraren indarraldian osasun-agintaritzen arteko lankidetzarako tresnak indartu dira: nagusiki, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak irizpideak eztabaidatu eta ezarri ditu; eta gobernantza partekatuko ereduak aukera eman du prebentzio-neurriak lurralde-eremu bakoitzeko egoerak eskatzen dituen baldintzetara egokitzeko. Horrek indar betean jarraitzen du, Lurraldearteko Kontseilu hori Osasun Sistema Nazionalaren Kohesio eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legean zehaztuta dagoelako.

Ondorioz, pentsatzen da aipaturiko osasun-legedia eta gainerako osasun-arauetan jasotako xedapenak, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra barne, errege lege-dekretu honetan egindako unean uneko aldaketak eta guzti, esparru juridiko nahikoa eta egokia direla gaixotasunaren egungo egoera epidemiologikoan eta kontrolekin osasun-krisiari erantzuteko.

Hala ere, SARS-CoV-2ak eragindako pandemiak ez du bakarrik osasun-krisi bat ekarri; gainera, gure herrialdea ere astindu duen krisi global, ekonomiko eta sozial sakona ere eragin du.

Horregatik, pandemiaren hasieratik beste neurri asko hartu dira zenbait eremutan, osasun-arloan bakarrik ez; bereziki, neurri ekonomikoak eta sozialak. Haien eraginkortasuna alarma-egoera indarrean dagoen denboraren menpe jarri da, eta haiek ere maiatzaren 9an amaituko dira. Orobat beste neurri batzuk gaineratu behar dira, berariaz alarma-egoeraren indarraldiak baldintzatuta ez dauden arren SARS-CoV-2ak eragindako pandemiaren ondorioei dagokienez hartu baitira, ehun ekonomiko eta sozialerako eragin kaltegarriak arintzeko asmoz.

Neurriotako batzuk berariaz hartu ziren SARS-CoV-2 birusak eragindako pandemiak eremu guztietan —ez bakarrik osasun-eremuan— izan dituen ondorio larrietatik eratorritako kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko.

Hala, beharrezkoa eta premiazkoa da neurrietako batzuei eustea pandemiaren ondorio txarrek iraun bitartean, alarma-egoeraren indarraldia bukatu arren, eta alarma-egoeraren indarraldiaren amaierak eragingo dien egoera juridiko jakin batzuk egokitzea.

## II

Errege lege-dekretu honek sei kapitulu, hamabost artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen dauzka.

I. kapituluan, osasun-eremuko premiazko neurri batzuk ezartzen dira, nazioarteko bidaiarien osasun-kontrolari buruzkoak. Arlo horretan, beharrezkoa da ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian xedatutako alderdiak berrikustea (23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira), nazio-mailan eta turismo-igorle nagusiak diren herrialdeetan pandemiari aurreikusten zaion bilakaerara egokitzeko; txertaketaren estaldura areagotzea eragin handia du neurrietan, zeinek nazioarteko mugikortasuna nabarmen areagotzea ekarriko bailukete. Neurri horren xedea da Espainiara datozen pertsonen —batez ere, arrisku-herrialdeetatik datozenei— kontrolak ahalik eta arinen eta segurtasun-maila jaitsi gabe egitea, kontrol horiek aireportuetako eta portuetako jardueran ahalik eta traba gutxien egin dezaten.

Garrantzitsua da COVID-19ko kasu inportatuak, gure herrialdean agerraldiak izatea ekar dezaketenak, azkar detektatzea, eta kasu horiekin harreman handia izan dutenak aurkitzea; hori dela eta, Espainiako portu eta aireportuetan osasun-neurriak jarri behar dira abian. Premia handikoa da osasun-kontrolerako mekanismoak egokitzea biziki kezkarriak diren aldaerak transmititzen diren eremuetatik datozen kasuak detektatzeko. Neurri horiek inportatutako kasuak detektatzeko sistema global baten barruan daude, eta kasuok goiz identifikatzea eta gaixotasuna kontrolik gabe hedatzea eragozten duten kontrol-neurri egokiak berehala hartzea baldintzatuta du sistema horren arrakasta. Horretarako, Spain Travel Health-SpTH informazio-sistema garatu da. Horren bidez, Europar Batasunaren

esparruan sortzen diren ziurtagiri digitalak egiaztatzeko zeregina kudeatu ahal izango da, bidaiarien fluxuen kudeaketa bidaiaren aurretik egindako egiaztapenez hobetu, eta kasuak inportatzeko arriskua murrizte aldera helduz neurri gehigarriak aplikatu behar zaizkien bidaiariak errazago aurkitu. Horretarako, lehenetsuneko da bidaiaria-agentzien, bidaiaria-agentzia handizkariak eta aireko zein itsasoko garraioeko konpainiak ahalik eta laguntza handiena ematea.

Horri guztiari esker, bidaiarien segurtasuna eta konfiantza areagotu ahal da eta, era berean, nazioarteko mugimenduekin lotutako COVID-19aren transmisio-arriskua mugatuko da.

II. kapituluan, jabetza horizontalaren araubideko erkidegoetako jabeen batzarrei aplikatu beharreko neurri berezi batzuk ezartzen dira. Erkidego horietan, ez da jabeen bilerarik egiten ari, COVID-19aren ondorioz modu presentzian egiteko ezarri diren mugapenengatik, eta zalantzak daudelako erabakiak era telematikoa hartzeko aukerari buruz, Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak ez baitu aipatzen bilerak era telematikoa egiteko aukera.

Hori dela eta, xedatutako neurrien helburua, lehenik eta behin, lege-hutsune hori betetzea da, batzarren bilerak geldiarazi baititu eta horrek aurreikus daitezkeen diru-sarreraren eta gastuen plana, dagozkien kontuak eta urteko aurrekontua onartzeko betebeharrari eragiten baitio, baita gobernu-organoen izendapenei ere. Modu horretan, pandemiaren aurka hartutako osasun-neurriek eragindako egoera koiuntural hori arintzeko, 2021eko abenduaren 31ra arte etengo da jabeen batzarra iragartzeko eta egiteko betebeharra jabetza horizontalaren araubidean dauden erkidegoetan, baita aurreikus daitezkeen diru-sarreraren eta gastuen plana, dagozkien kontuak eta urteko aurrekontua onartzeko betebeharrak ere. Aldi horretan, edo dagozkien batzarra egin arte, onartutako azken urteko aurrekontua eta gobernu-organoen izendapenak luzatuz joko dira.

Bigarrenik, garrantzitsua da ahalik eta lasterren irizpide argi bat edukitzea enpresak jabeen erkidegoen instalazioetan jardun daitezkeen eta lan egin ahal izan dezaten eta azkenean jabeek onura ateratu diezaieten. Horregatik, jabeen batzarra bideo-konferentziaz edo telefono-konferentziaz anizkoitzez egitea baimentzen da, jabe guztiek behar diren baliabideak badauzkate (administratzaileak egiaztatuko du, batzarren aurretik) eta idazkariak batzarrera joan diren jabeak identifikatzen baditu eta aktan hala adierazten badu. Gainera, kasu horretan, erabakia batzarrik gabe hartzeko aukera ere egongo da, botoa postaz nahiz komunikazio telematikoz emanez.

III. kapituluan, bestalde, kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoeretan aplikatu beharreko neurri berezi batzuk ezartzen dira; funtsean, kalteberatasun-egoeroi erantzuteko hartutako neurri batzuen indarraldia alarma-egoeraren indarraldia amaitu eta hiru hilabeteko epean luzatzean datza, hots, 2021eko abuztuaren 9ra arte, hornidura jakin batzuen bermeari eta kontsumitzaileek eta talde kaltebera batzuek gizarte-bonua jasotzeko duten eskubideari dagokienez, baita martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan jasotzen diren etxebizitza-errentamenduaren eremuko babes-neurri batzuei dagokienez ere.

Hala, lehenik eta behin, kontsumitzaile kalteberei ur, elektrizitate eta gas naturalaren hornidura bermatzeko, bereziki egungo egoeran bermatzeko, dauden babes-neurriak indartzen dira, 4. kapituluaren bidez: kontsumitzaile kalteberen babesa modu eraginkorrean finkatzeko neurriak hartzen dira bertan, energia-pobreziaren fenomenoak identifikatzeko eta hura modu estrukturalen murrizteko garatutako egiazko esparruarekin bat etorritik. Hitz batean, kontsumitzaile kalteberentzako ur, elektrizitate eta gas naturalaren horniduraren bermea, abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian xedatuta zegoena, 2021eko abuztuaren 9ra arte luzatzen da, egungo alarma-egoeraren indarraldiaren menpe baitzegoen.

Horrez gain, 5. artikuluan kontsumitzaile kalteberaren beste kategorizazio bat taxutzen da, elektrizitaterako gizarte-bonua jasotzeko eta horniduraren etenduratik bereziki babesteko; hala, kontsumitzaile kalteberaren izaera zabaltzen da eta, beraz, gizarte-bonua dagokion moduan jasotzeko eskubidea 2021eko abuztuaren 9ra arte luzatzen, alde batera utzi gabe urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak xedatutako gainerako kasuen babesean

izaera horri data horren aurreko zein osteko edozein unetan heltzeko aukera (897/2017 Errege Dekretua, urriaren 6koa, Kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituena).

Bestalde, etxeetako egoera sozial eta ekonomikoari erantzuteko xedearekin, luzatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretuak etxebizitzaren arloko kalteberatasun-egoeretarako ezarritako babes-neurrien indarraldia (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko); hain zuzen, oraingo alarma-egoera amaitzen denetik epeak hiru hilabetez luzatzeko aldatzen da dekretu hori.

Modu horretan, lehenik eta behin, 7. artikulua bidez 2021eko abuztuaren 9ra arte luzatzen da kalteberatasun-egoeretan etxetik botatzeko prozeduren etenaldia, dagoeneko ezarrita dauden kasuetarako eta dagoeneko ezarrita dauden izapideen arabera.

Artikulu horretan bertan, errentamendu-kontratuaren epearen aparteko luzapen bat, gehienez ere sei hilabetekoa, aplikatzeko aukera zabaltzen da; aldi horretan ere, indarreko kontraturako ezarritako baldintzak aplikatuko zaizkie azkentzea 2021eko maiatzaren 9tik abuztuaren 9ra bitartean ezarrita daukaten kontratuei, alderdien artean bestelako akordioak egin ez bada.

Errentaren ordainketa berandutzeko edo errentaren zati bat barkatzeko eskaera egiteko aukera ere 2021eko abuztuaren 9ra arte zabaltzen da, errentatzailea etxebizitzar-arloko enpresa zein entitate publikoa edo edukitzaile handia denerako, errege lege-dekretu horretan arautzen denaren arabera, eta ordura arte luzatzen dira sei hilabeteko aparteko luzapenari heldu ahal dioten etxebizitza-errentamenduko kontratuak, indarreko kontratuaren baldintzak batere aldatu gabe. Hau da, errentariak kasu horietan errentaren ordainketa aldi baterako eta aparteko neurri gisa geroratzeko aukera luzatzen da, errentaren ordainketa guztia edo zati bat geroratzeko edo barkatzea ez bada jada borondatez lortu bi alderdien arteko akordio baten bidez.

Bestalde, 8. artikuluan, luzatu egiten da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutako aparteko etendurak ukitutako errentatzaileek eta etxebizitzaren titularrek abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko konpentsazioaren eskaera aurkezteko epea (37/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriena).

Epe hori hilabetekoa zen, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoeraren indarraldia amaitzen zenetik hasita; beraz, neurri horietarako aurreikusten den hiru hilabeteko luzapenarekin, eskaera aurkezteko epea 2021eko irailaren 9an amaituko da.

Neurri horien iraupena aldi baterako luzatzeko arrazoiak premia eta beharra dira, alarma-egoera bukatu ostean suspertze sozial eta ekonomikoa pixkanaka gertatuko delako, konfiantza berreskuratzeko bidea ematen duen txertaketa-ehunekoa lortu ahala, eta aldi horretan balitekeelako sektore jakin batzuetako jardura ekonomikoak oraindik ere murrizketa batzuk izatea pandemiaren bilakaera eta ondorioak direla medio.

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro onetsi du gizarte-eragina duten neurriak hartzea salbuespenezko eta premia larriko egoeretan. Onespenez hori emateko, premia horren motibazio esplizitu eta arrazoitua behar da, bai materiala, bai formala, arautestuen modu arruntan izapidetzea eragozten duen presarekin lotua dagoena.

Errege lege-dekretu honek bete egiten du Konstituzio Auzitegiaren doktrina errepikatua hori, zeina epai anitzetan jasota dagoen (besteak beste, otsailaren 4ko 6/1983 epaiaren 5. oinarri juridikoan, urtarrilaren 17ko 11/2002 epaiaren 4. oinarri juridikoan, uztailaren 3ko 137/2003 epaiaren 3. oinarri juridikoan eta uztailaren 7ko 189/2005 epaiaren 3. oinarri juridikoan).

Ohiko etxebizitzaren errentari askoren kalteberatasuna areagotu egin da, egungo egoeran ekonomia geldirik dagoelako, enpleguak galdu direlako, lanaldiak eta soldatak nabarmen murriztu direlako, eta abar. Okertze horren ondorio larriei aurre egiteko beharretik dator motibazio materiala. Eta aparteko eta presazko beharrezana Gobernuari dagokion judizio politikoaren eta aukera-judizioaren barruan dago (berriro ere, Konstituzio

Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaiaren 4. oinarri juridikoa eta irailaren 11ko 142/2014 epaiaren 3. oinarri juridikoa).

Gainera, hartutako neurriak ezinbestekotzat jotzen dira ukitutako interes orokorrei erantzuteko, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 21eko 139/2016 epaiaren 3. oinarri juridikoaren arabera «zentzu-lotura edo egokitasun-harremana» baitago «oinarri gaitzailea den egoera definituaren eta lege-dekretuan hartzen diren neurrien artean» (hala dio, hasieratik, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaiaren 3. oinarri juridikoak —Konstituzio Auzitegiak 1982an berretsitako epaia, 29—; eta epai berriago batzuek ere bai: Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 12ko 96/2014 epaiaren 5. oinarri juridikoak —Konstituzio Auzitegiak 2014an berretsitako epaia, 96— eta azaroaren 6ko 183/2014 epaiaren 4. oinarri juridikoak —Konstituzio Auzitegiak 2014an berretsitako epaia, 183—).

Laburbilduz, osasun- eta ekonomia-krisiaren ondoriozko salbuespenezko egoerak justifikatzen du neurrien aparteko eta presazko beharrezakia; izan ere, krisiaren ondorioz, nahiz eta alarma-egoeraren indarraldia bukatu, ez da izan COVID-19aren aurreko mailak berreskuratzeko moduko susperraldi ekonomikorik, eta, horren eraginez, ez dira bukatu babesa behar duten kalteberatasun-egoera larriak, bai etxebizitza-errentamenduaren eremuan, bai etxeentzako hornidura jakin batzuen funtsezko izaerari dagokionez.

Espainiako etxeak eremu ekonomiko eta sozialean izaten ari diren egoera larriak eta horrek batez ere etxebizitzaren eremuan eduki ditzakeen ondorio bereziek justifikatzen dute proposaturiko neurriak hartzeko aparteko eta presazko beharrezakia, osasun-krisiaren eragina eta alarma-egoeraren testuinguruan hartutako neurrien eragina kontuan hartuta, baita etxe kalteberenen babesa alarma-egoera bukatutakoan beste hiru hilabetez bermatzeko beharrezakia ere.

Genero-indarkeriari dagokionez, martxoaren 24ko 1/2021 Legeak (Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrienak) 1. artikuluan ezartzen du genero-indarkeriaren biktimentzako zerbitzuak funtsezko zerbitzutzat hartzen direla: «Lege honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, errege lege-dekretu honen 2. artikulutik 5.era aipatzen diren zerbitzuak funtsezko zerbitzutzat hartuko dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan, hura garatzeko arauetan eta martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako ondorioekin (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eta martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuak, berriz, funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen du, COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko helburuarekin)».

Lege horren jatorria martxoaren 31ko 12/2020 Errege Lege Dekretua da (genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurriena), eta aipatutako 1. artikulua, errege lege-dekretu horren 1. artikulua kopia.

Genero-indarkeria giza eskubideetarako mehatxua da; besteak beste, bizitzarako, osotasun fisiko eta psikikorako, osasunerako, segurtasunerako eta biktimen eta gizarte osoaren ongizate ekonomiko eta sozialerako. Horregatik, nazioarteko egungo pandemia-egoeran (Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n igo zuen nazioarteko pandemiaren kategoriara COVID-19ak eragindako osasun publikoko nazioarteko osasun-larrialdiko egoera), beharrezkoa da babes- eta laguntza-zerbitzuek egoki funtzionatzeko neurriak atxikitzea eta garatzea, paretik kenduz biktimei laguntza integraleko ohiko baliabideak eskuratzea eta genero-indarkeriako egoerak komunikatu eta salatzea zailtzen edo eragozten dieten oztopoak edo, baliabide horiek izanda ere, laguntza-zerbitzuak eskuragarri ez egotea edo ohiko arreta-mailan eskuragarri ez egotea eragin dezaketen oztopoak.

Neurri horien bidez, biktimen eskubideak bermatu ahalko dira; bereziki, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak (genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurri buruzkoak) xedatutako gizarte-laguntza osorako eskubidea. Halaber, Europako Kontseiluak emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria saihesteko eta haien aurka borrokatzeko Istanbulen 2011ko maiatzaren 11n sinatutako hitzarmena bete ahalko

da, zeinak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko behar diren neurriak hartzera behartzen dituen estatu kideak.

Horiek horrela, funtsezko zerbitzutzat hartu behar dira emakumeen aurkako indarkeria-mota guztien biktimei (sexu-ustiapena xede duen salerosketaren eta sexu-ustiapenaren biktimak barne) informazioa, aholkularitza, telelaguntza, gizarte-laguntza osoa eta abegia emateko zerbitzu publikoak eta genero-indarkeriaren jarraipena bitarteko telematikoz egiteko sistema, eta izaera horri eutsi behar diote alarma-egoeraren indarraldia amaitu ostean ere. Gainera, beharrezkotzat jotzen da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak) funtsezko zerbitzuei buruz 18. artikuluan xedatzen duena bezalako manu bat txertatzea. Horri guztiari erantzuten dio errege lege-dekretu honen 9. artikulua.

Errege lege-dekretu honen 10. artikulua Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 24ko 1/2021 Legearen 8. artikulua aldatzen du. Hain zuzen ere, jatorrizkoak zera dio: «Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek errege lege-dekretu honetan jasotzen diren prebentzio- eta laguntza-proiektu edo -programa guztiak abian jartzeko erabili ahal izango dituzte Genero Indarkeriaren Aurkako Estatuko Itunetik dagozkien funtsak, bai eta, alarma-egoeraren testuinguruan, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztien prebentzioa, babesa eta arreta bermatzea helburu duen beste edozein funts ere».

10. artikuluan egiten den aldaketaren bidez, xedapen horrek alarma-egoeraren indarraldiarekin duen lotura hautsi nahi da, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek Genero Indarkeriaren Aurkako Estatuko Ituneko funtsak erabiltzen jarraitu ahal dutela bermatzeko asmoz, bakoitzak bere eskumen-esparruan behar diren programak gara ditzan nazioarteko pandemia geldiarazteko neurrien ondoriozko kalteberatasun-testuinguru zehatzean genero-indarkeriaren biktimen prebentzioa, laguntza eta babesa bermatzeko.

Azaldutako neurriei beste hiru neurri sozial gaineratzen zaizkie. Lehenengoa Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legeak 1.2.b) artikuluan xedatutako epearen luzapenari buruzkoa da.

1.2.b) artikulua horren arabera, sozietate anonimoek eta erantzukizun mugatuko sozietateek «lan-sozietate» kalifikazioa eskuratzeko, bazkide titular bakar batek ere ez du eduki behar sozietatearen kapitalaren herena baino gehiago osatzen duen akzio edo sozietate-partaidetzen kopurua; gero, salbuespen hau egiten du: «Lan-sozietatea lan-kontratu mugagabea duten bi bazkide langilek eratzea hasiera batean, bakoitza sozietate horren kapitalaren eta boto-eskubideen ehuneko berrogeita hamarraren jabe izanik eta letra honetan ezarritako mugara 36 hilabeteko epean egokitzeko betebeharra edukita».

Horri dagokionez, kontuan izan behar da ezen, lege beraren 15.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, 1. artikuluan aurreikusten diren egokitzapen-epeak bukatzen direnean Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunak «lan-sozietate» kalifikazioa kenduko diola sozietateari eta Lan Sozietateen Erregistroan baja emateko agindua emango duela, dagokion espedientea izapidetu ondoren. Lan-sozietate kalifikazioa galduz gero, sozietateak galdu egingo ditu deskalifikazioa eragin duen arrazoa gertatzen denetik jasotzen dituen irabaziak eta laguntza publikoak eta, hortaz, itzuli egin beharko ditu irabaziak eta laguntza horiek.

Proiektaturiko neurriaren bitartez, 36 hilabeteko gehieneko epe hori beste 24 hilabetez luzatu nahi da, aparteko neurri gisa, osasun-pandemiak eragindako krisi ekonomikoa dela eta aipaturiko legeak une honetan 1.2.b) artikuluan finkatzen duen gehieneko egokitzapen-epean legez ezarritako mugetara egokitu ezin izan diren lan-sozietateen deskalifikazioak ekarriko lituzkeen ondorioak saihesteko asmoz.

Neurri horren helburua da lan-sozietateek kalifikazioa galtzeko eta desagertzeko arriskuak minimizatzea eta COVID-19ak eragindako krisiak trabarik ez jartzea lan-sozietate horiek aurrerantzean ere gizarte-ekonomiaren eta enplegu-sorkuntzaren funtsezko enpresa-formula izateko eta zeregin horretan finkatzeko bidean.

Bestalde, Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsaren erabilera aldi baterako malgutzeak ere COVID-19aren ondorioak arintzea du xede.

Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legeak, 56. artikuluan, Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa arautzen du, eta zera dio 1. apartatuan: «... estatutuek edo batzar nagusiak ezarritako oinarrizko ildoak aplikatuz, xede hauetako bat betetzen duten jardueretarako erabiliko da:

a) Bazkideei eta langileei prestakuntza eta hezkuntza ematea kooperatibaren printzipioei eta balioei buruz zein haien sozietate- edo lan-jarduerarekin eta gainerako kooperatiba-jarduerekin berariaz lotuta dauden gaiei buruz.

b) Kooperatibismoa hedatzea eta kooperatiba barruko harremanak sustatzea.

c) Toki-ingurunearen edo oro har komunitatearen sustapen kultural, profesional eta asistentziala egitea, eta bizi-kalitatea eta garapen komunitarioa hobetzea eta ingurumena babesteko ekintzak hobetzea».

Manu horretan, aipatutako funtsaren erabilerari eta kudeaketari buruzko oinarrizko alderdiak jasotzen dira. Funtsa ezin da enbargatu eta ezin da banatu kideen artean, nahiz eta kooperatiba likidatu.

Bestalde, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak, 13.3 artikuluan, zergaren arloan babestutako kooperatibaren izaera galtzeko arrazoi hau ezartzen du: «Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtseko kopuruak legean xedatutakoez bestelako helburuetarako erabiltzea». Orobat, 19.4 artikulua lehenean paragrafoan hau gaineratzen du: «Funtsa onetsitakoez bestelako xedeetarako erabiliz gero, erabiltzen den ekitaldiko diru-sarreratzat joko da bidegabeki aplikaturiko zenbatekoa, 13. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe».

Ildo horretan, Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa lege ezarritakoaz bestelako xede baterako erabiltzeko —adibidez, proiektutako xedeetarako; alegia, funtzionamendurako likidezia emateko edo COVID-19ak eragindako osasun-krisia geldiarazten zein haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jardura egiteko—, aparteko neurri gisa eta aurrekontu-ekitalditik geratzen den aldirako, beharrezkoa eta premiazkoa da proposaturiko neurria onestea, horrela saihestuko baitira sozietate horien kudeaketari kalte egin liezaioketen edo sozietateen xedea, jarduerak eta ezaugarriak aintzat hartuta dagokien zerga-araubidetik kanpo utz litzaketen zerga- eta aurrekontu-ondorioak.

Neurriaren bidez, salbuespenez eta aldi baterako, eta betiere kooperatibek bereizgarri dituzten printzipioekin, balioekin eta autokudeaketa demokratikoko prozedurekin bat etorriz, Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa COVID-19ak eragindako osasun-krisia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jardueretarako erabili ahalko da, bai norberaren ekintzen bidez, bai beste entitate publiko zein pribatuentzako dohaintzen bidez, edo kooperatibari likidezia emateko erabili ahalko da, funtzionatzen jarraituko duela ziurtatzeko.

Azkenik, osasungintzako profesionalak beharko dira beti osasun-krisiak iraun bitartean, alarma-egoera deklaratu egon zein ez; hortaz, ezinbestekoa da administrazio publikoek horrelako langileen kontratazioa erraztea. Hori dela eta, beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen da osasungintzako profesional erretiratuak autonomia-erkidegoetako eta autonomia-estatutua duten hirietako osasun-zerbitzuetan borondatez sartzeko aukerari buruzko neurriak indarrean segitzea, eta bide ematea erretiroa hartuta egotea eta osasun-lanbideetan aritzea bateragarria izateko, jaso beharreko pentsioa gutxitu gabe, osasungintzako profesional erretiratuak osasun-zerbitzu publikoetan sartzeko direla bermatzeko asmoz.

Neurri hori otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretuak ezarri zuen (genero-arrakala murrizteko eta beste gai batzuetarako neurriak hartzen dituena Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren alorrean), 5. artikuluan ezarri ere, eta errege lege-dekretu honen 13. eta 14. artikuluen bidez jarraitutasuna eman nahi zaio, bai profesional sanitario eta soziosanitarioen korporazio eta elkarteek bai parlamentuko taldeek zabal babesten baitute eta oso eragin ona izaten ari baita COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko eta hari eusteko orduan. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da osasun-krisiak iraun bitartean eustea neurriari, alarma-egoera indarrean egon zein ez.

Azkenik, zioen azalpen honen hasieran aurreratu den moduan, alarma-egoeraren indarraldia bukatzeaz dagoelarik, nahiz eta osasun-agintaritzek salbuespenezko neurriak hartzeko eskumenak eduki (legedi arruntean xedatutakoak) pandemiaren ondoriozko osasun-krisiari aurrea hartzeko, eusteko eta hura mugatzeko, orobat egia da funtsezko eskubideak murrizten dituzten neurriek baimen edo berrespen judiziala jaso behar dutela, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritz.

Lege hori irailaren 18ko 3/2020 Legeak aldatu zuen (Justizia Administrazioaren eremuan COVID-19ari aurre egiteko prozesu- eta antolamendu-neurriei buruzkoak), Auzitegi Nazionaleko eta justizia-auzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salei eskumena emateko osasun-legediaren arabera estatu-eremuko zein beste eremu bateko osasun-agintaritzek hurrenez hurren osasun publikorako premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzen dituzten eta funtsezko eskubideak mugatzea edo murriztea dakarten neurrien baimen edo berrespen judiziala azter dezaten neurria aplikatuko zaien horiek banan-banan identifikatuta ez daudenean.

Eskumen hori erabiliz, justizia-auzitegi nagusietako salek, osasun-neurriok berresteko edo baimentzeko prozeduren barruan iritzia eman behar izan duten zenbaitetan, estatuko osasun-esparru aplikagarriaren beste interpretazio bati jarraitu diote, eta kontrako jarrerak agertu dituzte osasun-esparru horrek bide ematen ote duen pandemiaren aurka borrokatzeko osasun-agintaritzak autonomikoei beren eskumenak erabiliz modu kolektiboan eta orokorrean hartutako neurrietan funtsezko eskubideetan ezarri dituzten murrizketak eta mugapenak ezartzeko.

Koronabirusak eragindako pandemiari aurre egite aldera administrazio publikoek herritarren funtsezko eskubideak murrizteko neurriak hartzeko, baimen edo berrespen judiziala behar da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8.6 artikulua bigarren paragrafoan, 10.8 artikuluan, 11.1 i) artikuluan eta 122 quater artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz, irailaren 18ko 3/2020 Lege haren azken xedapenetako bigarrenean lege hori emandako moduaren arabera.

Horri dagokionez, errege lege-dekretu honen 15. artikuluan aldaketa bat egiten zaio uztailaren 13ko 29/1998 Legeari, kasazio-errekurtsua honela arautzeko asmoz: kasazio-errekurtsuaren erreformaren bitartez, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salari aukera eman nahi zaio justizia-auzitegi nagusietako eta Auzitegi Nazionaleko aipaturiko salek arlo horretan emandako autoak aztertze eta, gainera, lege-doktrina finkatzeko, autonomia-erkidegoko eta Estatuko administrazio publikoek eta Fiskaltzak esku hartuta, osasun-agintaritzek herritarren funtsezko eskubideei ezarritako mugapenekin edo murrizketekin lotuta osasun-legediak duen irismenari buruz; hori guztia, oso epe laburrean, halaxe eskatzen baitu hain osasun-egoera larri eta bereziak, agintaritzak horrelako neurriak hartzea behartzen dituelako eta kasazio-errekurtsu arruntak behar dituen epe luzeak horretarako eraginkorrak ez direlako.

Hala ere, auto horien aurkako kasazio-errekurtsu txertatzeak ez du balio izango doktrina bateratzeko xedea erdiesteko, ez bada sartzen lege-mekanismoak kasazio-errekurtsuaren arintasuna bermatzen duenik, hau da, Auzitegi Gorenaren epaiaren bidezko kontrola eraginkorra izatea bermatzen duenik kontrol horri auzialdiko jurisdikzio-erabakia hartu eta berehala heltzeagatik.

Horretarako, lehentasun- eta sumariotasun-printzipioetan oinarritutako prozedura-arau berezi batzuk sartu behar dira. Ondorioz, kasazio-errekurtsu horrek ez du aurretiazko berraztertze-errekurtsorik eskatu behar (autoen aurkako gainerako kasazio-errekurtsuok ez bezala); ez du iraungitze-adierazpenik egon behar, eta prozedura modu sumarioan eta lehentasunez izapidetu behar da, errekurtsuaren onarpena epaitzeko prozesuan txertatuz, onarpen-fasea eta epaitze-fasea bereizi gabe, horixe gertatzen baita orain autoen (eta orobat epaien) aurkako kasazio-errekurtsuarekin.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, eta Diputatuen Kongresuak hari eustea erabaki zuen 2020ko urriaren 27an, azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez. Bada, alarma-egoera berehala bukatuko denez, saihetsezina eta premiazkoa da Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan



kasazio-errekurtsuaren erreformari heltzea, aurreko paragrafoetan azaldutako egoera juridikoa berriz gertatu ez dadin. Izan ere, pandemia oraindik herritarren osasunean ondorio kaltegarriak izaten ari denez, alarma-egoerak indarra galdutakoan ere baliteke osasun-agintaritzek osasun publikorako premiazkoak eta beharrezkoak diren neurriak hartu behar izatea horri aurre egiteko, eta, neurriok herritarren funtsezko eskubideak murrizten edo mugatzen badituzte, justizia-uzitegi nagusietako eta Uuzitegi Nazionaleko salen nahitaezko baimen edo berrespen judiziala beharko dute.

Horrenbestez, ezinbestekoa da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutako prozesu-sistemak mekanismo egoki bat edukitzea alarma-egoeraren indarraldia amaitzen denean, Uuzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salari aukera ematen diona osasun-neurrien baimen eta berrespen judizialerako prozeduretan Estatuko arau-esparruaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren zalantzak eta desadostasunak ebazteko.

Errege lege-dekretu honetan kasazio-errekurtsuari egin nahi zaion aldaketa ezin da izapidetze parlamentarioaren prozedura arruntaren bidez onetsi. Izan ere, hori eginez gero, alarma-egoera bukatzen denetik legegintza-errefoma horiek onetsi arte ere, interpretazio eta hurbilketa judizial desberdinak egingo lirakeke Estatuko osasun-esparru aplikagarriari buruz, eta Uuzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak ezingo lituzke ez horiek aztertu, ez jurisprudentziarik finkatu funtsezko eskubideak murrizten edo mugatzen dituzten osasun-neurriak judizialki baimentzeko eta berresteko prozeduretan sorturiko kontuei buruz.

Horregatik dago aparteko eta presazko beharrezana Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen oraingo arauketa berehala aldatzeko, prozedura horietan emandako autoen aurkako kasazio-errekurtsua bereziki arin eta lehentasunez izapidetzeko moduan jartzeko aukera sartzearren, Uuzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak arlo horretan iritzia oso azkar eman ahal izan dezan eta arau-esparru hori nazio-lurralde osoan modu bateratuan aplikatu ahal izan dadin.

### III

Konstituzioaren 86. artikulua araberan, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presazko beharrezana dagoenetan», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberan, tresna zilegia da baldin eta, Konstituzio Auzitegiak behin eta berririo eskatu bezala (otsailaren 4ko 6/1983 epaiaren 5. oinarri juridikoa, urtarrilaren 17ko 11/2002 epaiaren 4. oinarri juridikoa, uztailaren 3ko 137/2003 epaiaren 3. oinarri juridikoa, uztailaren 7ko 189/2005 epaiaren 3. oinarri juridikoa, 68/2007 epaiaren 10. oinarri juridikoa eta 137/2011 epaiaren 7. oinarri juridikoa), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea bada, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala —ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan— ematea eskatzen duen egoera batean, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar du badela «ezinbesteko lotura bat azaldutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaiaren 3. oinarri juridikoa, urriaren 20ko 182/1997 epaiaren 3. oinarri juridikoa eta uztailaren 3ko 137/2003 epaiaren 4. oinarri juridikoa)».

Hain zuzen, Konstituzio Auzitegiak behin eta berririo egin du gizartearen eragin handia duten neurriak hartzearen alde salbuespenezko eta premia larriko egoeretan. Berme hori emateko, motibazio esplizitua eta arrazoitua behar da, bai materiala, bai formala, arau-testuen izapidetze arruntari heltzea eragozten duen premiarekin lotua.

Gainera, neurri horiek aplikatzeko behar den premia dela medio, maiatzaren 9an alarma-egoeraren indarraldia iraungiko denez, argi dago legegintza-prozedura arruntari jarraituz gero, presako izapidea erabiliko balitz ere, ez liratekeela garaiz hartuko COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisitik eratorritako zenbait egoerari behar den estaldura juridiko eta soziala ematea xede duten neurri horiek; neurriok ezin dira alarma-egoeraren indarraldiarekin bakarrik lotu horrelako krisi-egoerek eta batzuetan kalteberatasun berezikoek iraun bitartean, aldi batean behintzat.

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango ez Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Ia haren manu guztietan, aldi baterako, puntualki edo salbuespenez luzatzen da lehenago —bai alarma-egoeraren deklarazioak babestuta edo harekin estuki lotuta, bai SARS-CoV-2ak eragindako pandemiaren ondoriozko krisi-egoera larriarekin estuki lotuta— hartutako salbuespenezko neurrien indarraldia.

Zehatz-mehatz, errege lege-dekretuak jabetza-eskubidean duen eraginari dagokionez, indarraldia luzatutako neurriak bat datoz eskubide horrek bete behar duen eginkizun sozialarekin; eragin hori, hain zuzen ere, «ez da haren definiziorako edo erabilerarako kanpoko muga hutsa, baizik eta eskubidearen beraren osagaia» (Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 epaiaren 2. oinarri juridikoa). Hortaz, errege lege-dekretu baten bidezko arauketa ezin da hartu eskubidea desagerrarazten duen, beste zerbait bihurtzen duen edo ezagutezin egiten duen eragintzat (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 17ko 89/1994 epaiaren 5. oinarri juridikoa). Horrez gain, Konstituzioaren 86.1 artikuluko beste muga materialak errespetatzen dira, ez baita arautzen jabetza pribaturako eskubidearen araubide orokorra. Aitzitik, haren elementu puntual batzuk aldi baterako aldatzen dira; zehazki, kalteberatasun-egoeretan etxea utzarazteko eta etxetik botatzeko prozedurak eteteko aukerari buruzkoak, egoera jakin batzuetan azkendutako errentamendu-kontratuen aparteko luzapenari buruzkoak eta kalteberatasun-egoeran dagoen errentariari kasu jakin batzuetan errentaren ordainketa berandutzeko edo errentaren zati bat barkatzeko eskatzeko aukerari buruzkoak.

Errege lege-dekretuak, azkenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die orobat; bereziki, premia, efikazia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientziaren printzipioei.

Premiaren eta efikaziaren oinarrian interes orokorra dago, herritar kalteberenentzat ezarritako babes-neurriak funtsatzen diren interes orokorra. Errege lege-dekretuak proportzionaltasun-printzipioa ere betetzen du, lehenago aipaturiko helburuak erdiesteko ezinbestekotzat jotzen diren neurriak jasotzen dituelako gutxieneko aldi baterako (Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 21eko 139/2016 epaia). Zehazki, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro adierazi duen moduan (batez ere, Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 epai nagusiaren 2. oinarri juridikoa), eginkizun soziala jabetza-eskubidearen edukiaren beraren osagaitzat jotzeak arauaren proportzionaltasuna edo arrazoizkotasuna sakon arakatzetik eta oinarri faktikoak frogatzetik salbuesten du; hala, nahikoa da arauaren xedea jabetzaren eginkizun sozialean naturaltasunez txertatzea xede hori konstituzionala dela zehazteko.

Era berean, indarreko ordenamendu juridikoarekin koherentea denez, bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin, eta, azkenik, gardentasun-printzipioari dagokionez, arau hau kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideetatik salbuetsita dago, lege-dekretua izateagatik, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26.11 artikuluan baimentzen duen moduan.

Beraz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Gobernuko lehen presidenteorde eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko ministroak, Justiziako ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Osasuneko ministroak, Gizarte Eskubideetako

eta Agenda 2030eko ministroak, Berdintasuneko ministroak eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroak hala proposatuta eta Ministroen Kontseiluak 2021eko maiatzaren 4ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Osasun-eremuko premiazko neurriak

#### 1. artikulua. *Nazioarteko bidaiarien osasun-kontrola.*

1. Europar Batasuneko zuzenbidearekin bat etorri mugak kontrolatzeko har daitezkeen neurriak alde batera utzi gabe, Osasun Ministerioak zehaztuko du zer kontrol egin behar zaizkien Espainiara heltzen diren bidaiariei eta zer irismen edukiko duten, eta ministerio hori izango da betearazpenaren arduraduna. Osasun-kontrol horietan, temperatura hartu, dokumentazioa aztertu eta bidaiariaren egoera begiraldi bat eginez kontrolatu ahalko da.

2. Dokumentazioaren kontrolari dagokionez, Espainiako lurraldetik kanpo dagoen edozein aireportu edo portutatik datozen bidaiariek osasun-kontrolerako inprimaki bat bete beharko dute, Spain Travel Health web-atarian eta gailu mugikorretarako SpTh-Spain Travel Health aplikazioan eskuragarri egongo dena. Inprimakiaren edukia Osasun Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak ezarritakoa izango da.

Behin osasun-kontrolerako inprimakia beteta, QR kode bat sortuko da, eta ezinbestekoa izango da kode hori ontziratuta baino lehen eta Espainiara heltzean aurkeztea.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, bidaiaria-agentziek, bidaiaria-agentzia handizkariak, aireko zein itsasoko garraioko konpainiek eta aireko zein itsasoko txartelak banan-banan edo bidaiaria konbinatu baten barruan merkaturatzen dituen beste edozein agentek osasun-kontrolerako neurri guztiak eta neurriak ez betetzearen ondorioak jakinarazi beharko dizkiete bidaiariei, Espainia helmuga duten txartelak saltzeko prozesuaren hasieran. Zehatz-mehatz, ontziratuta baino lehen Spain Travel Health sortutako QR kodea aurkeztu beharra eta hori ez betetzearen edo faltsutzearen ondorioak ezagutaraziko dituzte. Era berean, behar duten laguntza emango diete osasun-kontrolerako inprimakia betetzeko bitarteko elektronikorik ez daukaten pertsoneri.

4. Heltzean egiten den osasun-kontrolerako detektatzen bada bidaiari batek COVID-19a edo osasun publikorako arriskutsua izan daitekeen beste eritasun bat duela beharbada, mediku-ebaluazio bat egingo da haren alderdi epidemiologikoak eta klinikoak baloratzeko. Medikuek ebaluazioan, infekzio aktiboaren proba diagnostiko bat egin ahalko da. Arrisku-herrialde batetik datozen pertsoneri eta arriskua ebaluatzeko prozesuekin lotutako zaintza aktiboko esparruan hala ezartzen den pertsoneri ere egin ahalko zaie proba diagnostikoa.

Bidaiariak COVID-19a edo osasun publikorako arriskutsua izan daitekeen beste eritasun bat daukan susmoa baieztatzen bada edo uxatzen ez bada, autonomia-erkidegoen osasun-zerbitzuekin komunikatzeko ezarritako protokoloak jarriko dira abian, haiei arreta emateaz eta haien jarraipena egiteaz ardua daitezen.

5. Aireko bidaiari dagokionez, osasun-kontrolak aireportu-kudeatzailearekin koordinatuta ezarri beharko dira. Aireportu-kudeatzaileak eta hegazkin-konpainiek laguntza emango diete Osasun Ministerioari neurriak ezartzeko. Aena SME SAK kudeatutako aireportuetan, lankidetzaren horretan, kontuan hartuko da martxoaren 29ko 2/2021 Legeak (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrienak) lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa.

6. Itsasoko bidaiari dagokionez, interes orokorreko portuetan, osasun-kontrolak portu-agintaritzekin koordinatuta ezarriko dira, Estatuko Portuak erakundearen bidez; haiek, ontzi-konpainiekin batera, neurriak ezartzen lagunduko diete Osasun Ministerioari. Lankidetzaren horretan kontuan hartuko da martxoaren 29ko 2/2021 Legeak (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrienak) bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

## II. KAPITULUA

### **Jabetza horizontalaren araubideko erkidegoetako jabeen batzarrei aplikatu beharreko neurri bereziak**

#### 2. artikulua. *Betebeharren etendura, eta luzapenak.*

1. Jabetza horizontalaren araubidean dauden erkidegoetan jabeen batzarrak iragartzeko eta egiteko betebeharra 2021eko abenduaren 31ra arte etengo da.

2. Aldi horretan, aurreikus daitezkeen diru-sarreraren eta gastuen plana, dagozkien kontuak eta urteko aurrekontua onartzeko betebeharrak ere etenda egongo dira.

3. Aldi horretan, edo dagozkien batzarra egin arte, onartutako azken urteko aurrekontua eta gobernu-organoen izendapenak luzatutzat joko dira, nahiz eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzean legezko epea edo estatutuen bidez ezarritakoa amaituta egon.

#### 3. artikulua. *Bilerak egiteko aukera.*

1. Salbuespenez, aldi horretan, 2021eko abenduaren 31ra arte berandutu ezin den erabaki bat hartu behar bada, jabeen batzarra bildu ahalko da lehendakariak, jabeen laurdenek edo gutxienez partaidetza-kuoten 100eko 25 dituen jabeen kopuruak eskatuta. Nolanahi ere, ezingo dira berandutu Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak 10.1.b) artikuluan aipaturiko obra, jarduketa eta instalazioei dagozkien erabakiak, batzarraren erabakia behar dutenak.

2. Artikulu honetan aurreikusten den kasuan, jabeen batzarra bideokonferentzia edo telefono-konferentzia anizkoitzez egin ahalko da, baldin eta:

a) jabe guztiek behar diren baliabideak badauzkate (administratzaileak egiaztatuko du, batzarraren aurretik) eta

b) idazkariak batzarrera joan diren jabeak identifikatzen baditu eta aktan hala adierazten badu.

Erabakia idazkaria edo idazkari administratzailea dagoen helbidean hartu dela ondorioztatuko da.

3. Artikulu honetan aurreikusten den kasuan, erabakia batzarrik gabe hartzeko aukera ere egongo da, botoa postaz nahiz komunikazio telematikoaz emanez, beharrezkoak diren bermeak bete ahal badira: jabe guztiek parte hartzeko, igorlearen nortasuna ezagutzeko eta komunikazioa jasotzeko bermeak.

Horrelakoetan, erkidegoko lehendakariak idazki baten bidez eskatuko die botoa jabe guztiei; idazki horretan, hauek adieraziko ditu: data, bozketaren xedea (argi eta garbi adierazita), botoa bidaltzeko jarritako helbidea edo helbideak eta botoa emateko epea (10 egun natural).

Erabakia idazkaria edo idazkari administratzailea dagoen helbidean eta botoa emateko ezarritako epeko azken egunean hartu dela ondorioztatuko da.

Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak 15.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, lehendakariak botoa eskatzen duen unea joko da batzarraren hasieratzat.

4. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, jabeen batzarra modu presentzian egin ahalko da une bakoitzean aplikatu beharreko segurtasun-neurriak bermatzen direnean.

5. Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak 18. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan xedatutakoaren arabera hartutako erabakiak aurkaratzeko arrazoia izango da hemen azaldutako partaidetza- eta identifikazio-bermeak ez betetzea.

### III. KAPITULUA

#### **Kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoeretan aplikatu beharreko neurri bereziak**

##### *1. atala. Horniduraren bermea*

#### 4. artikulua. *Kontsumitzaile kalteberentzako ur- eta energia-horniduraren bermea.*

1. 2021eko abuztuaren 9ra arte, egun hori barne, ezingo zaie energia elektrikoaren, gas naturalaren eta uraren hornidura eten urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak 3. eta 4. artikuluetan zehaztutakoaren arabera kontsumitzaile kalteberatzen, kontsumitzaile kaltebera larritzat edo gizarte-bazterketako arriskuan dagoen kontsumitzailetzat jotzen direnei (897/2017 Errege Dekretua, urriaren 6koa, Kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen). Gas naturalaren eta uraren enpresa hornitzaileen aurrean kontsumitzaile kalteberaren izaera egiaztatzeko, nahikoa izango da elektrizitaterako gizarte-bonua jasotzen dela agertzen duen azken elektrizitate-faktura aurkeztea.

2. Era berean, kontsumitzaile horientzat, neurri hori indarrean dagoen aldia ez da kontuan hartuko ordaintzeko errekerimendu fede-emailea egiten denetik eta ez ordaintzeagatik hornidura eten artean dauden eta indarreko araudiak ezartzen dituen epeetarako.

3. 1. apartatuan azaldutako hornidura-etenduraren debekua kontsumitzaile hauei ere aplikatuko zaie: hornidura-kontratuaren titulartasuna egiaztatu ezin izan arren urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 3. artikuluen arabera kontsumitzaile kalteberaren edo kaltebera larriaren izaera aitortzeko eskubidea ematen duten betekizunak betetzen dituztenei. Inguruabar hori egiaztatzeko, gizarte-zerbitzu eskudunek edo gizarte-bitartekariak ziurtapena emango diote enpresa hornitzaileari, agiri hauekin batera:

a) Etxebizitzako hornidura-puntuko kontsumitzailearen IFZren edo AIZren fotokopia, baita ahaidetasun-loturak edo lotura analogoak dituzten pertsonen osatutako bizikidetzak unitateko kide guztiena eta, hala badagokio, ahaidetasun-loturarik edo lotura analogorik gabe etxebizitzan bizi diren pertsona ere.

b) a) letran aipaturiko guztien indarreko errolda-ziurtagiria, banakakoa zein baterakoa. Eskaera horretarako, ez da beharrezkoa izango eskatzailearen egoitzan erroldatutako pertsonen baimena izatea.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Estatuaren Administrazio Orokorraren laguntzailea den hirugarren sektoreko entitateak jotzen diren gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateak izango dira gizarte-bitartekariak, Tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapen eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurri buruzko ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Gizarte-zerbitzu eskudunek edo, hala badagokio, gizarte-bitartekariak edo enpresa hornitzaileek kontsumitzailearen baimena beharko dute haren datu pertsonalak tratatzeko, eta datu pertsonalen babesari buruzko araudian xedatutakoaren arabera tratatuko dituzte.

##### *2. atala. Gizarte-bonurako eskubidea*

#### 5. artikulua. *Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden kolektibo jakin batzuek gizarte-bonua jasotzeko duten eskubidea.*

1. Kontsumitzaile hauek joko dira beren ohiko etxebizitzan kontsumitzaile kalteberatzen, Kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak jartzen dituen baldintzen arabera: hornidura-puntuaren

titularrak artikuluko honen 2. apartatuko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen dutenak artikuluko honetan ezarritakoari jarraituz eta errege lege-dekretu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera eskaera-ereduko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz.

Norberaren konturako langile edo autonomo baten ohiko etxebizitzako hornidura-kontratua pertsona juridikoaren izenean badago, gizarte-bonua pertsona fisikoarentzat eskatu beharko da; hortaz, hornidura-kontratuaren titulartasuna aldatu beharko da.

2. Energia elektrikoaren kontsumitzailea artikuluko honen ondorioetarako kontsumitzaile kalteberatzen joan izateko, 4. apartatuaren arabera egiaztatu beharko du hornidura-puntuaren titularra edo haren familia-unitateko kideetako bat langabezian dagoela, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEEE) batean dagoela, lanaldia zaintzengatik murriztuta daukala (enpresaburua bada) edo diru-sarreraren galera nabarmena dakarten antzeko egoera batean dagoela eta, horregatik, familia-unitateko kideen diru-sarrera guztiek ez dituztela kopuru hauek gainditzen gizarte-bonua jasotzeko eskaera osoa eta behar den dokumentazio guztia aurkeztu aurreko hilabetearen:

a) 14 ordainsariko IPREM-en edo ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren hamabiren baten halako 1,5, familia-unitate batean ez badago edo familia-unitatean adingaberik ez badago.

b) 14 ordainsariko IPREM adierazlearen hamabiren baten halako 2, familia-unitatean adingabe bat badago.

c) 14 ordainsariko IPREM adierazlearen hamabiren baten halako 2,5, familia-unitatean bi adingabe badaude.

Ondorio horietarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera eraturakoa jotzen da familia-unitatetzat.

Hamalau ordainsariko IPREM adierazleari dagozkion errenta-biderkatzaile horiek, kasu bakoitzean, 0,5 igoko dira inguruabar berezi hauetako bat betetzen denean:

a) Kontsumitzaileak edo familia-unitateko kideren batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua izatea.

b) Kontsumitzaileak edo familia-unitateko kideren batek genero-indarkeriako egoera egiaztatzea, indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

c) Kontsumitzailea edo familia-unitateko kideren bat terrorismoaren biktima izatea, indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

d) Kontsumitzaileak edo familia-unitateko kideren batek II. edo III. graduako mendekotasuna aitortua izatea, indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

e) Kontsumitzaileak frogatzea guraso bakar batek eta gutxienez adingabe batek osatzen dutela familia-unitatea. Inguruabar berezi hori egiaztatze aldera soilik, merkaturatzaileak familia-liburuaren eta errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko du ez dela bigarren gurasorik bizi hornidurarekin lotuta gizarte-bonua daukan etxebizitzan.

3. Aurreko apartatuan definitutako kontsumitzaile kalteberaren izaera eta, beraz, gizarte-bonua dagokion eran jasotzeko eskubidea aipaturiko inguruabarrak desagertzen direnean iraungiko dira. Kontsumitzaileak hilabete igaro baino lehen eman beharko dio egitate horren berri erreferentzia-merkaturatzaileari.

Erreferentzia-enpresa merkaturatzaileak aurreko apartatuan aurreikusten den data baino lehen jaulkitzen duen azken fakturan adierazi behar dio kontsumitzaileari iraungipenaren data. Halaber, jakinaraziko dio behin epe hori igarota kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioaren arabera egingo dizkiola berak fakturak, eta nahi izanez gero hornidura merkatu libreko merkaturatzaile batekin kontratatzeko aukera duela.

4. 2. apartatuan definitutako kontsumitzaile kalteberaren izaera egiaztatzeko eta gizarte-bonua eskatzeko, kontsumitzaileak eskaera-eredua eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean eskuragarri dagoen erantzukizunpeko

adierazpena bidali beharko dizkio erreferentzia-merkaturatzaile bati, haren webgunean agertzen den helbide elektronikoaren bitartez, egiaztatiri hauekin batera:

- a) Legezko langabezia-egoeran egonez gero, prestazioak kudeatzen dituen entitateak egindako ziurtagiria.
- b) Norberaren konturako langileek jarduera utzi badute, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria, jarduera utzi izanaren interesdunaren deklarazioan oinarritua.
- c) Hornidura-puntuaren titularraren IFZren edo AIZren kopia eta, familia-unitate batean badago, agiri hori nahitaezkoa duen kide bakoitzaren IFZren edo AIZren kopia.
- d) Hornidura-puntuaren titularraren edo familia-unitateko kide guztien indarreko errolda-ziurtagiria, banakakoa edo baterakoa.
- e) Familia-liburua, familia-unitaterik badago.
- f) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, 2. apartatuan eskatutako betekizunak betetzeari buruzkoa.

Erreferentzia-merkaturatzaileak eskaera jaso duela baieztatzeko mezu elektronikoa bidaliko dio hornidura-puntuaren titularrari.

5. Xedapen honen babesean gizarte-bonua jasotzeko egindako eskaerak izapidetzean, alderdi hauek aintzat hartuko dira:

- a) Eskaera osatu gabe badago, erreferentzia-merkaturatzaileak, gehienez ere bost egun balioduneko epean eskaera jasotzen duenetik, kontsumitzaileari esango dio zer egiaztatiri falta zaion.
  - b) Erreferentzia-merkaturatzaileak, kontsumitzailearen eskaera osoa eta egiaztatiriak jasotakoan, gehienez ere bost egun balioduneko epean, aztertu beharko du betekizunak artikulua honetan ezarri bezala egiaztatu direla, eta posta elektronikoz jakinaraziko dio kontsumitzaileari, edo telefonoz (kontsumitzaileak aukera hori hautatu badu), ebaluazioaren emaitza.
- Artikulu honetan ezarritako betekizunak ondo egiaztatu direla aztertzeko, erreferentzia-merkaturatzaileak ez du erabili beharrik izango Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen plataforma informatikoa, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aipatzen dena.
- c) Frogantzaren egiaztapenaren emaitza positiboa bada eta gizarte-bonuaren eskaerak merkaturatzaile-aldaketa badakar, aipaturiko bost eguneko epean egin beharko da aldaketa, eta kontratua formalizatu, kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioan.
  - d) Eskaera osoa eta beharrezkoak diren egiaztatiriak jasotzen diren fakturazio-zikloko lehen egunetik aurrera sortuko da gizarte-bonua.

6. Hala ere, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera kontsumitzaile kalteberaren izaera aitortu zaien eta 2021eko ekainaren 30ean xedapen horretan ezarritako betekizunak betetzen jarraitzen duten kontsumitzaileek izaera horri eutsiko diote berriz egiaztatu behar izan gabe, non eta aipatutako inguruabarrak desagertzen ez diren data horren ostean, hori gertatuz gero 3. apartatuan xedatutakoa aplikatuko baita.

7. Nolanahi ere, artikulua honetan xedatutako kontsumitzaile kalteberaren izaera eta, beraz, dagokion moduan gizarte-bonua jasotzeko eskubidea 2021eko abuztuaren 9an iraungiko dira. Dena den, data horren aurreko zein osteko edozein unetan, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan xedatutako gainerako kasuen babesean heldu ahalko diote izaera horri.

6. artikulua. *Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden kolektibo jakin batzuek gizarte-bonua jasotzeko duten eskubidea bidegabeki aplikatzearen ondorioak.*

1. Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden kolektibo jakin batzuek gizarte-bonua jasotzeko duten eskubidearen onuradun izan den baina aurreko artikulua 2.

apartatuan xedatutako betekizunak bete ez dituen hornidura-kontratuaren titularra izango da sortutako kalte-galeren erantzulea, baita salbuespenezko neurri horiek aplikatzeak eragindako gastu guztien erantzulea ere, hargatik eragotzi gabe jokabide hori dela-eta izan daitezkeen bestelako erantzukizunak.

2. Kalte-galeren eta gastuen zenbatekoa ezingo da izan hornidura-kontratuaren titularrak araua aplikatuta bidegabeki eskuratutako onura baino txikiagoa. Gainera, errege lege-dekretu honetan araututako neurrien aplikazioa lortzeko asmoz borondatez eta nahita kalteberatasun ekonomikoko kasuetan kokatzen edo geratzen saiatzen denean ere izango da erantzulea.

3. Administrazioak edozein unetan bildu ahalko du gizarte-bonuaren onuradun izan den aldi osoari dagozkion betekizunak —errentarekin lotutakoak barne— bete direla egiaztatzeko informazio guztia.

### 3. atala. *Etxebizitzaren arloko kalteberatasun-egoerentarako babes-neurriak*

7. artikulua. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko, honela:

Bat. 1. artikulua honela idatzita geratzen da:

«1. artikulua. *Bertan behera uztea beste bizitegi-aukerarik ez duten maizter kalteberei etxea utzarazteko prozedura eta haiek etxetik botatzeko prozedurak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abuztuaren 9ra arte, errentariak, artikulua honetan xedatutakoarekin bat etorritik, etxea utzarazteko edo etxetik botatzeko prozedura eteteko aparteko intzidentea hasi ahalko du epaitegian, beretzat eta berekin bizi diren pertsonentzat beste bizitegi-aukera bat aurkitzea galarazten dion kalteberatasun ekonomikoko egoera batean egoteagatik, zor dituen kopuruei zein errenta-erreklamazioei edo azaroaren 24ko Hiri Errentamenduen 29/1994 Legeak xedatutakoaren arabera sinaturiko kontratuen iraupena amaitzeari buruzko hitzezko judizio guztietan, finka berreskuratu nahi denean, prozesua aurretiaz lege horren 441.5 artikuluan ezarritako baldintzetan etenda egon nahiz ez.

Halaber, errentaria etxetik botatzeko eguna zehaztu ez bada, izan 440.3 artikuluan aipatzen den hamar eguneko epealdia igaro ez delako, izan ahozko ikustaldia egin ez delako, epealdia etengo edo ahozko ikustaldia bertan behera geldituko da.

Etendura-neurri horiek apartekoak eta aldi baterako dira, eta ondoriorik gabe geldituko dira, nolana ere, 2021eko abuztuaren 9tik aurrera.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den etendura gauzatzeko, errentariak frogatu beharko du errege lege-dekretu honen 5. artikulua a) eta b) letratan aipatzen diren kalteberatasun ekonomikoko egoerentako batean dagoela; horretarako, 6.1 artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu. Justizia Administrazioaren letraduak aurrekoaren berri emango dio demandatzaileari, eta hark hamar eguneko epealdia edukiko du epaitegian frogatzeko, aurreko bide berak erabiliz, bera ere 5. artikulua a) letran azaltzen den kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela edo zirkunstantzia horretan egoteko arriskuan izango dela baldin eta botatzea eteteko neurria ezartzen bada.

3. Azaldutako idazkiak aurkeztu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak berehala helarazi beharko die dokumentazio guztia gizarte-zerbitzu eskudunei, eta txostena egiteko eskatuko die. Txosten hori hamar eguneko epealdian egin beharko da, eta, han, errentariaren kalteberatasuna baloratu beharko da (eta, behar denean,



errentatzailearena ere bai) eta administrazio eskudunak ezarri beharreko neurriak ehaztu beharko dira.

4. Aurkeztutako dokumentazioa eta gizarte-zerbitzuen txostena ikusita, epaileak autoa emango du, eta, haren bidez, errentaria etxetik botatzeko prozedura etetea erabakiko du, baldin eta frogatutzat jotzen badu errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela eta, errentatzailea ere egoera berean bada, azken horren kalteberatasunak ez daukala lehentasunik. Errentaria kalteberatasun-egoeran dagoela frogatzen ez bada edo lehentasuna eman behar bazaio errentatzailearen kalteberatasunari, prozedurak aurrera egitea erabakiko du epaileak. Nolanahi ere, etendura ezartzen duen autoan berariaz adieraziko da 2021eko abuztuaren 9an berez hasiko direla zenbatzen 440.3 artikuluan aipatzen den aldiko egunak, edo ahozko ikustaldia egiteko eta, hala badagokio, errentaria etxetik botatzeko eguna finkatuko dela, prozesua zer egoeratan dagoen.

Kalteberatasuna frogatzen bada, administrazio publiko eskudunek gizarte-zerbitzuen txostenean ezartzen diren neurriak (edo egokitutako jotzen diren beste batzuk) aplikatu beharko dituzte, etenaldia amaitu aurretik, kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-beharrizana betetzeko, hau da, etxebizitza duin baterako duen eskubidea bermatzeko. Neurri horiek aplikatutakoan, administrazio eskudunak epaitegiari jakinarazi beharko dio berehala, eta Justizia Administrazioaren letraduak prozeduraren etendura amaitzeko dekretua eman beharko du hiru egun igaro baino lehen.

5. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 150.4 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, pentsatuko da errentaria ados dagoela, utzarazpena eteteko eskabidea aurkezte hutsagatik.

Halaber, kalteberatasun ekonomikoko egoera alegatzen duen idazkia aurkezte hutsa nahikoa izango da ondorioztatzeko errentatzailea ados dagoela artikulua honetan arautzen den komunikazioa egitearekin».

Bi. 1 bis artikulua honela idatzita geratzen da:

«1 bis artikulua. 2021eko abuztuaren 9ra arte bertan behera uztea ekonomikoki kalteberak diren eta beste bizitegi-aukerarik ez duten pertsonen etxea utzarazteko prozedurak eta haiek etxetik botatzeko prozedurak Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 250.1 artikuluen 2., 4. eta 7. apartatueta arautzen dituen kasuetan eta utzarazpena zigor-prozedura bati zor zaionean.

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abuztuaren 9ra arte, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 250.1 artikuluen 2., 4. eta 7. apartatueta aipatzen dituen demandak gauzatzen diren hitzezko judizio guztietan eta horretarako gaitzen duen titulurik gabe ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonak hortik botatzeko zigor-arloko beste prozesuetan, epaileak ahalmena edukiko du prozedura alarma-egoera bukatu eta hiru hilabete igaro arte eteteko.

Etendura-neurri horiek apartekoak eta aldi baterako dira, eta ondorioz gabe geldituko dira, nolanahi ere, 2021eko abuztuaren 9an.

2. Aurreko apartatuaren arabera etxetik botatzeko prozedura eten ahal izateko, ezinbestekoa izango da etxebizitzak hamar etxebizitza baino gehiagoren titularrak diren pertsona fisikoenak edo pertsona juridikoenak izatea eta titulurik gabe bertan bizi diren pertsonak kalteberatasun ekonomikoko egoeran egotea, 5. artikuluen a) letran deskribatutako egoeretako batean egoteagatik.

Epaileak kasua haztatu eta proportzionaltasunez baloratu ondoren hartuko du erabakia; besteak beste, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan:

a) Ondasun higiezin sartzeko edo bertan gelditzea erabateko premiaren ondorioa den ala ez. Premia nolakoa den aztertzean, gizarte-zerbitzuek hurrengo apartatuarekin bat etorritik egindako txostena baloratuko da.

b) Etxebizitzan bizi direnak agintaritza eskudunekin elkarlanean aritu diren etxebizitza duinerako eskubidea bermatzen dien beste bizitegi-aukera bat lortzeko irtenbideen bila.

3. Aurreko apartatuko etendura aplikatzeko, etxebizitza batean titulurik gabe bizi denak mendekotasuna eduki behar du, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 2. artikuluaen bigarren apartatuan xedatzen duenarekin bat etorriz, edo, bestela, emakumearen kontrako indarkeriaren biktima izan behar du, edo bere kargura eduki behar du berarekin etxebizitza berean bizi den adingabe bat edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bat.

Nolanahi ere, etxebizitza batean titulurik gabe bizi diren pertsonak frogatu beharko dute errege lege-dekretu honen 5. artikuluaen a) letran aipatzen diren kalteberatasun ekonomikoko egoeretako batean daudela; horretarako, 6.1 artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Justizia Administrazioaren letratuak egiaztapenaren berri emango dio demandatzaileari edo salatzaileari.

4. Justizia Administrazioaren letratuak berehala helarazi beharko die dokumentazio guztia gizarte-zerbitzu eskudunei, eta txosten bat egiteko eskatuko die. Txosten hori hamabost eguneko epealdian egin behar da, eta, han, higiezinan bizi diren pertsonen kalteberatasuna baloratu behar da eta administrazio eskudunak ezarri beharreko neurriak zehaztu behar dira.

5. Etxebizitzan bizi direnak kalteberatasun-egoeran daudela egiaztatuz, epaileak gainerako inguruabar guztiak haztatuko ditu, eta, ondoren, hala badagokio, auto baten bidez erabakiko du 2021eko abuztuaren 9ra arte geratzen den denboran etetea haiek etxetik botatzeko prozedura. Eskatzaileak kalteberatasun-egoeran dagoela frogatzen ez badu, 2. apartatuan ezartzen denaren arabera ez badauka etendura eskatzeko eskubiderik edo 6. apartatuan azaltzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada, epaileak erabakiko du, auto bidez, etxetik botatzeko prozedurak aurrera egitea.

Kalteberatasun ekonomikoa frogatzen bada, administrazio publiko eskudunek gizarte-zerbitzuen txostenean ezartzen diren neurriak (edo egokitzen diren beste batzuk) aplikatu beharko dituzte, etenaldirako gehieneko epea amaitu aurretik, kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-beharrizana betetzeko, hau da, etxebizitza duinerako haren eskubidea bermatzeko. Neurri horiek hartutakoan, administrazio eskudunak berehala jakinarazi beharko dio auzitegi eskudunari, eta epaileak prozeduraren etendura amaitzeko eta etxetik botatzeko prozedurari ekiteko autoa eman beharko du gehienez ere hiru eguneko epean.

6. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 150.4 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, demandatua ados dagoela joko da, utzarazpena etetea eskabidea aurkezte hutsagatik.

7. Artikulu honek hizpide duen etendura ez da inola ere bidezkoa izango etxean sartzean edo geratzean kasu hauetako bat gertatu denean:

a) Ondasun higiezinaren jabea pertsona fisikoa izanik, pertsona horren ohiko bizilekua edo bigarren bizitokia bada (ongi frogatuta egon behar du), guztira zenbat etxebizitza dauzkan kontuan hartu gabe.

b) Ondasun higiezinaren jabea pertsona fisiko edo juridikoa izanik, pertsona horrek zuzenbidean balioduna den titulu baten bidez pertsona fisiko bati laga badio ohiko bizileku edo bigarren bizitokia modura.

c) Higiezinan sartze edo geratze aldera pertsonak larderiari direnean edo haien aurkako indarkeria erabili denean.

d) Etxebizitza legez kanpoko jardueraren bat egiteko erabiltzen delako arrazoizko zantzuak daudenean.

e) Ondasun higiezinaren jabea erakunde publikoa zein pertsona pribatua izanik, higiezinaren etxebizitza sozial gisa erabiltzen denean, baldin eta hura kudeatzen duen administrazioak edo entitateak dagoeneko eskatzaile bati esleitu badio.

f) Etxebizitzan sartzea errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren gertatzen denean».

Hiru. 2. artikulua honela idatzita geratzen da:

«2. artikulua. *Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren aparteko luzapena.*

Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaien ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abuztuaren 9ra arteko aldiari amaitzen bada lege horren 9.1. artikuluan ezartzen den nahitaezko luzapena edo lege horren beraren 10.1 artikuluan ezartzen den isilbidezko luzapena, errentamendu-kontratuaren iraunaldiari ezohiko luzapena aplikatu ahal izango zaio, errentariak eskatu ondoren, sei hilabetekoa gehienez, eta, aldi horretan, indarrean dagoen kontratuan ezarritakoa eta bertan finkatutako baldintzak aplikatuko dira, ordura arte bezala. Errentatzaileak onartu egin beharko du aparteko luzapenaren eskaera, non eta alderdiek elkar hartuta ez duten besterik adostu edo, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 9.3 artikuluan ezarritako epealdian eta bertan agindu bezala, errentatzaileak ez duen jakinarazi errentatutako etxebizitza berak okupatu behar duela edo odolkidetasuneko lehen mailako edo adopzio bidezko ahaide batek edo, banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasuneko epai irmoa egonik, ezkontideak han bizitzeko».

Lau. 4. artikulua 1. apartatua honela idatzita geratzen da:

«1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean sinatutako ohiko etxebizitzaren kontratu baten errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago, hurrengo artikuluan zehazten den bezala, eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo erakunde publikoa edo edukitzaile handia bada (hau da, hamar hiri-ondasun higiezin baino gehiagoren titularra, garajeak eta trastelekuak zenbatu gabe, edo 1.500 m<sup>2</sup>-tik gora eraikita dauden higiezin baten titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa), errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio 2021eko abuztuaren 9ra arte errentaren ordainketa aldi batez eta aparteko neurri gisa geroratzeko; nolana ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiek lehendik borondatez adostuta ez edukitzea ordainketa geroratzea edo ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat barkatzea».

8. artikulua. *Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurrien abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurrien abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretua, honela:

Bat. Bigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua honela idatzita geratzen da:

«3. Konpentsazioa jasotzeko eskabidea 2021eko irailaren 9ra arte aurkeztu ahal da. Etxebizitzaren titularrak bidezkoa deritzon konpentsazioa zein den azaldu beharko du, arrazoiak emanez eta aurretik aipatu diren irizpideak oinarritzat hartuz».

Bi. Bigarren xedapen gehigarriaren 6. apartatua honela idatzita geratzen da:

«6. Konpentsazioa jasotzeko eskabidea 2021eko irailaren 9ra arte aurkeztu ahal da. Etxebizitzaren titularrak bidezkoa deritzon konpentsazioa zein den azaldu beharko du, arrazoiak emanez eta aurretik aipatu diren irizpideak oinarritzat hartuz».

## IV. KAPITULUA

**Genero-indarkeriaren arloko neurri bereziak**

9. artikulua. *Genero-indarkeriaren biktimenzako babes- eta laguntza-zerbitzuek duten funtsezko zerbitzuen izaerari eustea.*

1. Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 24ko 1/2021 Legeak xedatutakoaren ondorioetarako, 2021eko abuztuaren 9ra arte joko dira 2. artikulutik 5. artikuluraino ezarritako zerbitzuak funtsezkotzat.

2. Ondorio horietarako, administrazio publiko eskudunek behar diren neurriak hartuko dituzte berezkoak dituzten zerbitzuak ziurtatzeko.

3. Hori bera eskatu ahal izango zaie aipaturiko zerbitzuak emateko funtsezkoak diren enpresa eta hornitzaileei ere.

10. artikulua. *Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 24ko 1/2021 Legea aldatzea.*

Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurrien martxoaren 24ko 1/2021 Legearen 8. artikulua honela idatzita geratzen da:

«8. artikulua. *Genero Indarkeriaren Aurkako Estatuko Ituneko funtsekin finantzatutako proiektuak edo programak.*

Autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek lege honetan jasotzen diren prebentzio- eta laguntza-proiektu edo -programa guztiak abian jartzeko erabili ahal izango dituzte Genero Indarkeriaren Aurkako Estatuko Itunetik dagozkien funtsak, bai eta COVID-19ak eragindako nazioarteko pandemiari eusteko neurrien testuinguruan emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean prebentzioa, babesa eta arreta bermatzeko beste edozein funts ere».

## V. KAPITULUA

**Beste neurri sozioekonomiko berezi batzuk**

11. artikulua. *Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legearen 1.2.b) artikuluan xedatutako epea luzatzea.*

1. Neurri berezi gisa, 24 hilabetez luzatzen da Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legeak 1.2.b) artikuluan xedatutako 36 hilabeteko epea, letra horretan ezarritako mugara iristeko.

2. Luzapen berezi hori 2017an, 2018an eta 2019an eraturako lan-sozietateei bakarrik aplikatuko zaie.

12. artikulua. *Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsaren erabilera aldi baterako malgutzea, COVID-19aren ondorioak arintzeko.*

1. 2021eko abenduaren 31ra arte, Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa, Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legeak 56. artikuluan arautzen duena, xede hauetarako erabili ahalko da guztiz edo neurri batean:

a) Finantza-baliabide gisa, kooperatibei likidezia emateko, funtzionatzeko halakorik behar badute.

Ondorio horietarako, kooperatibak itzuli egin beharko du helburu horretara bideratutako Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa, urtero sortzen diren xedapen askeko emaitzen % 30ekin gutxienez, harik eta funts horrek salbuespenez aplikatzeko erabakia hartzen den unean zuen zenbatekora iritsi arte, gehienez ere hamar urteko epean.

b) COVID-19aren osasun-krisialdia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduera egiteko, dela norberaren ekintzen bidez, dela beste entitate publiko edo pribatu batzuei dohaintzak eginez.

2. 2021eko abenduaren 31ra arte, Hezkuntzarako edo Sustapenerako Funtsaren aplikazioa onesteko eskumena bere gain har dezake Artezkaritza Kontseiluak, salbuespenez, 1. apartatuan xedatutako baldintzetan, baldin eta kooperatiba-sozietateen batzar nagusia bitarteko birtualen bidez egiteko deialdia egin ezin bada bitarteko egokirik edo nahikorik ez dagoelako.

3. Ondorio horietarako soilik, ez da aplikatuko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legearen 13.3 eta 19.4 artikuluetan xedatutakoa. Beraz, artikulua honen 1. apartatuaren a) letraren arabera aplikatu den Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa ez da kooperatibarentzako diru-sarreratzat hartuko.

13. artikulua. *Bateragarri egitea COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko giza baliabideen eta bitartekoen arloko neurriak ezartzen dituen martxoaren 15eko SND/232/2020 Aginduak eta SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Dekretuak ezarritakoaren babesean egindako jarduera eta osasungintzako profesionalen erretiro-pentsioa.*

1. Osasungintzako profesional hauei ere aplikatuko zaie COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak hamabosgarren xedapen gehigarrian eta Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren alorrean genero-arrakala murrizteko eta beste gai batzuetarako neurriak hartzen dituen otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretuak 5. artikuluan ezarritako araubide juridikoa, erretiro-pentsioa jasotzearen eta estatutupeko langile izendatua izatearen bateragarritasunari buruzkoa: autonomia-erkidegoko agintaritza eskudunak, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak (Ceutako eta Melillako hiri autonomoetan) edo Defentsa Ministerioak (Defentsaren Ospitale Sarean) eskatuta zerbitzuak ematen ari diren edo eman dituzten osasungintzako profesionalen, zuzenean autonomia-erkidegoekin eta aipatutako erakundeekin nahiz zentro pribatuen bitartez zerbitzuak lan-ordenamenduaren babesean ematen ari diren edo eman dituzten horiei.

Bateragarritasun-araubide hori lan-kontratuak iraun bitartean edo, hala badagokio, manu honen babesean edo bertan aipatutako araudiaren babesean egindako estatutu-izendapenak iraun bitartean mantenduko da, gehienez ere 2021eko abenduaren 31ra arte.

2. Osasungintzako profesionalak arau hau indarrean jarri baino lehen sinaturiko lan-kontratu baten arabera eta aurreko apartatuan xedatutako baldintzetan ematen ari baziren zerbitzuak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari jakinarazi beharko zaio errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean.

14. artikulua. *Medikuntzan eta erizaintzan diharduten langileen erretiro-pentsioa eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoera kudeatzeko gauzatutako jarduera bateragarri egitea.*

1. 2021eko abenduaren 31ra arte, erretiro-pentsioa bateragarria izango da medikuntzan eta erizaintzan diharduten eta COVIDaren aurka borrokatzeko zereginak betetze aldera estatutu-izendapen edo lan-kontratu baten arabera osasun-zentro publiko zein pribatuetan zerbitzuak ematen dituzten langileentzat, baldin eta osasungintzako agintaritza eskudunak adostutako baimenen ondorioz sartu badira zerbitzu aktiboan.

Osasungintzako profesionalak aurreko apartatuan xedatutakoaren babesean sektore pribatuko zentroetan emango badituzte zerbitzuak, jarduera hasi baino lehen jakinarazi beharko zaio Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari.

2. Onuraduna pentsioduntzat hartuko da ondorio guztietarako.

3. Erretiro-pentsioarekin bateragarria den besteren konturako lan hori egin bitartean, bete behar dituzte Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 16.

artikulan ezarritako afiliazio, alta, baja eta datu-aldaketari buruzko betebeharrak eta legetestu beraren 18. eta 19. artikuluetan ezarritako moduan kotizatzeke betebeharra, eta ez da aplikatuko 153. artikuluan xedatutakoa.

4. Lan hori egin bitartean, kontingentzia arrunt eta profesional guztietatik babestuta egongo dira, baldin eta kontingentzia horiek sortzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean ezarritako pentsioak, bateraezintasunak eta aukera-eskubidea mugatzeko araubidea aplikatuko zaie.

5. Egoera horretan aldi baterako ezintasunagatik sorospenerako sortzen den eskubidea besteren konturako lana amaitzeagatik iraungiko da, indarreko araudian xedatutako arrazoi orokorregatik iraungitzeaz gain.

6. Besteren konturako lana amaitutakoan, egoera horretan egindako kotizazioek erretiro-pentsioaren oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoa aldatzea ekarri ahalko dute, baina oinarria ez da aldatuko. Kotizazio horiek ez diete eragingo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 210.2 artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako ehuneko gehigarriari.

Adierazitako kotizazioek, era berean, jada sortutako erretiro aurreratuei aplikatu beharreko ehunekoa zehazteko bakarrik izango dituzte ondorioak, eta oinarri arautzailea ez da aldatuko.

## VI. KAPITULUA

### Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako neurri bereziak

15. artikulua. *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.*

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea honela aldatuta geratzen da:

Bat. Apartatu bat gehitzen da, 87. artikulua 1 bis apartatua, honela:

«1 bis. Nolanahi ere, lege honen 10.8 artikulua eta 11.1.i) artikulua aplikatuz emandako autoei jarri ahalko zaie kasazio-errekurtsoa».

Bi. 87. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«2. 1. apartatuan xedatutako kasuetan kasazio-errekurtsoa prestatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da aurrez berraztertze-errekurtsoa jartzea. Hala ere, kasazio-errekurtsuetan ez da nahitaezkoa izango aurrez berraztertze-errekurtsoa jartzea 1 bis apartatuan aipatzen diren autoen aurka».

Hiru. Artikulu bat gehitzen da, 87 ter artikulua, honela:

«87 ter artikulua.

1. Lege honen 10.8 artikulua eta 11.1.i) artikulua aplikatuz emandako autoen aurkako kasazio-errekurtsoa hasteko, idazki bat aurkeztu beharko da Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan; alderdiak han agertuko dira, eta kasazio-errekurtsoa zuzenean jarriko dute.

2. Alderdi errekurtsogileak, errekurtsoa jartzen duen egun berean, idazki bat aurkeztu beharko du auzialdiko salan, horren berri emateko, eta sala horrek, komunikazioa jaso eta hurrengo egun baliodunean, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salari bidali beharko dio errekurtsoa jarri zaion autoa eman zen prozeduran egindako jarduketan lekukotza.

3. Agerraldi- eta errekurtsoidakia hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, aurkaratutako autoaren jakinarazpen-datatik zenbatuta. Idakia

autoaren lekukotzarekin batera aurkeztuko da, eta bertan prozeduraren betekizunak azalduko dira eta doktrina finkatzea nahi den kasazio-intereseko kontua eta errekurtsua jarri zaion autoaren epaitzeari buruzko uziak aipatuko.

4. Estatukoaz bestelako eremu bateko osasungintzako agintaritzak batek hartutako neurri bati eman bazaio baimena edo berrespena Osasun Ministerioak osasun publikoaren arloan koordinatutako jarduketak betetzeko, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak aurretiaz erabakita hala badagokio, Estatuaren Administrazio Orokorrek ere edukiko du legitimazio aktiboa errekurtsu horretan.

5. Kasuaren inguruabarrak direla-eta beharrezkoa denean, eta, nolahi ere, ebazpena berandutzeak kalte itzulezinak eragin ahal dituztenean, alderdiek errekurtsu-idazkian eskatu ahalko dute egun baliogabeak gaitu daitezela kasazio-errekurtsua izapidetzeko eta ebazteko. Eskatutako gaikuntza ukatzen duen erabakiaren aurka ezingo da errekurtsorik jarri.

6. Idazkia, aurkeztutakoan, berehala helaraziko zaio izapidetzeko eta erabakitzeko eskumena duen atalari, eta hark lehentasunez izapidetuko du eta Fiskaltzari eta alderdiei emaitzaren berri emango die, hiru eguneko epe komuna igaro baino lehen ager daitezen eta alegazioak egin ditzaten.

7. Alegazioetarako epea igarotakoan, lege honen 128.1 artikuluan iraupen-adierazpenari buruz xedatutakoa ez bada aplikatzekoa, izapidetzeko eta erabakitzeko eskumena duen atalak doktrina finkatuko du, eta planteatutako kontuei eta uziei buruzko ebazpena emango du, bost eguneko epean.

8. Idazki guztiei salak ezarritako gehieneko luzerari eta estilo-arauei buruzko betekizunak aplikatuko zaizkie, lege honen 87 bis artikulua 3. apartatuan xedatutakoa betez».

Lau. 122. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«122 quater artikulua. *Osasungintzako agintaritzek osasun publikorako premiazkoztat eta beharrezkoztat jotzen dituzten eta funtsezko eskubideak mugatzea edo murriztea dakarten neurrien baimen edo berrespen judiziala.*

Lege honen 8.6 artikulua bigarren paragrafoan, 10.8 artikuluan eta 11.1.i) artikuluan aipatutako baimenak eta berrespenak izapidetzean, alderdia izango da Fiskaltza. Izapidetze horrek lehentasuna izango du beti, eta gehienez hiru egun naturaleko epean ebatzi beharko da, auto bidez».

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.
2. Espresuki indargabeturik geratzen dira xedapen hauek:
  - a) COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikulua.
  - b) Ekonomiaren eta Enpleguaren Aldeko Premiazko Neurri Osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikulua.
  - c) Ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-tituluak.*

1. Errege lege-dekretu honen I. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da; artikulua horrek atzerrirako osasunaren gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.

2. Errege lege-dekretu honen II. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua babesean ematen da; artikulua horrek eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari legedi zibilaren gainean, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foralak nahiz bereziak —halakoak diren tokietan— irautzeko, aldatzeko eta garatzeko dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

3. Errege lege-dekretu honen III. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1. artikulua 13. eta 25. puntuen babesean ematen da; puntu horiek eskumen eskusiboa esleitzen diote Estatuari, hurrenez hurren, jardura ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteko eta horren koordinazioa egiteko eta energia- eta araubidearen oinarriak ezartzeko.

4. IV. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 14. eta 29. puntuen babesean ematen da; puntu horiek, hurrenez hurren, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzeko eskumena eta Ogasun Nagusiaren eta segurtasun publikoaren gainekoak esleitzen dizkiote Estatuari.

5. V. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 6., 7. eta 17. puntuetan ezarritakoaren babesean ematen da; puntu horiek eskumen eskusiboak esleitzen dizkiote Estatuari merkataritza- eta lan-legegintzaren gainean eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legegintzaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

6. Errege lege-dekretu honen VI. kapitulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua xedatutakoaren babesean ematen da; artikulua horrek eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari prozesu-legegintzaren gainean.

7. Xedapen indargabetzaile bakarra Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 6., 16. eta 18. puntuetan ezarritakoaren babesean ematen da; puntu horiek eskumen eskusiboak esleitzen dizkiote Estatuari, hurrenez hurren, merkataritza-legegintzaren gainean, atzerrirako osasunaren gainean eta administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarriko legegintzaren gainean.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau 2021eko maiatzaren 9an jarriko da indarrean.

Madriren emana, 2021eko maiatzaren 4an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN